

Badugu

**AUKERA**

Vamos  
hacia el cambio

2022ko apirila

LAN OSASUNA

**Info**

## **APIRILAREN 19ko 286/2022 ERREGE DEKRETUA NOLA ULERTU BEHAR DUGU?**

*Barnealdeetan eta, beraz, lan ingurunean, oro har, maskara erabiltzea EZ DA derrigorrezkoa.*

### **OROKORTASUN HORRETATIK KANPO GERATZEN DIRA HURRENGO KOLEKTIBOAK:**

- > Osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduetako langileak.
- > Zentro soziosanitarioetako langileak.
- > Pertsonen garraiobideetako langileak.

Bestalde, Prebentzio zerbitzuek, lanpostuko arriskuen ebaluazioan identifikaturiko arriskuen arabera, plantillaren ezaugarriengatik, egiten duten lan motagatik, distantziak mantentzeko zailtasunagatik edo aireztapen egokirik ezagatik, lantokian edo lantokietako espazio jakin batzuetan ezarri beharreko prebentzio-neurri egokiak zehaztu ahal izango dituzte, maskarak erabiltzea barne. Balizko neurri hauek, langileen ordezkariekin eztabaidatu eta elkarlanean hartu beharko dira.

*Prebentzio zerbitzuek arrisku ebaluaketetan neurriak gomendatzerako garaian, neurri kolektiboei emango diete lehentasuna:*

- > Aireztapen egokia mantendu.
- > Aretoen okupazio maila mugatu.
- > Pertsonen arteko distantzia mantentzeko behar diren neurriak hartu (1,5m).
- > Denbora esposizioa mugatu (Erabiltze- eta atsedeen-denborak).
- > Espazio komun erabilpen egokia antolatu.
- > Pertsona kalteberen babes bermatu.

Azkenik, neurri kolektibo horiek teknikoki bermatu ezin direnean, EPlen (musukoa) erabilpena gomendatu ahal izango da betiere arrisku ebaluaketan horrela adierazia badago.

### **LABURBILDUZ:**

- > Musukoa ez da derrigorrezkoa aipaturiko 3 langile kolektibotan izan ezik.
- > Prebenzio zerbitzu batek lantokiko eremu edo prozesuren batean musukoa gomendatzen badu, arrisku ebaluaketan (prebentzioko ordezkariak parte hartu behar dute) espreski adierazia egon beharko du eta langileen osasunerako egiaztatutako arrisku bati erantzun behar dio, hau da, ezartzen diren neurriek saihestu nahi den arriskuarekiko proportzionalak izan behar dute.
- > Gainera, enpresak langileen legezko ordezkariarekin adostu behar du.
- > Neurri kolektiboei lehentasuna eman beharko die azken instantzian soilik musukoa gomendatuz, hau langileen ordezkariekin elkarlanean hartutako erabakia izango delarik.
- > Enpresak maskara erabiltzeko neurria justifikatzen duten arrazoen berri eman behar die langileei.